

APIRILAREN 7AN ETA 8AN DONOSTIAKO KURSAALEAN EGINGO DU SINDIKATU ABERTZALEAK V. BILTZAR NAGUSIA

LABek «subiranotasunean oinarrituriko eredu soziala» aldarrikatuko du kongresuan

■ Ponentzia politikoa, ekintza sindikala eta barne antolakuntza izango dira V. Biltzarreko eztabaidagai nagusiak

■ Euskal Herria bizitzen ari den egoera politiko berezian LABek ekarpenak egiteko nahiko indar duela uste du sindikatuak

■ ELArekin hainbat arlotan desadostasunak izan arren, elkarlanean segitzeko asmoa agertu du LABek

Kristina Martin / Bilbo

LAB sindikatuak V. Biltzar Nagusirako ponentziak aurkeztu zituen atzo hedabideen aurrean. Aurtengo Kongresuak kutsu berezia duela uste dute sindikatuen ordezkariak. Euskal Herria eraikuntza nazional eta sozialaren bidean ari dela, eta une politiko berrian sakondu behar dela nabarmendu dute. Horren ildotik, LAB sindikatuak prozesuaren eraikuntzan proposamenak eta ekarpenak egiteko gaitasuna duelakoan daude, eta horiek plazaratuko dituzte, hain zuzen ere, Donostiako Kursoalean, apirilaren 7an eta 8an, LABek egingo duen Kongresuan.

«Ziklo berri bat hastear dago Euskal Herrian, eta horretan parte hartu nahi dugu», esan zuen Rafa Diez LABeko idazkari nagusiak. Hiru ponentzia aurkeztuko dituzte: ponentzia politikoa, ekintza sindikala eta barruko antolakuntzari buruzkoa.

LABeko ordezkariak azpimarratu zuten, «azken lau urteotan eraikuntza nazionala izan da gure sindikatuaren ardatz nagusia. Lurraldetasunean eta subiranotasunean oinarritutako eredu soziala sortzea da gure eginbeha-



LABek bosgarren kongresuaren ponentziak aurkeztu zituen atzo Bilbon eginiko prentsaurrekoan.

rra. Eraikuntza nazionala eta soziala lotuta doaz eta elkarren beharra dute», esan zuen Rafa Diezek.

Bestalde, Rafa Diezek idazkari nagusi izateko hautagaitza berriro aurkeztuko duela

iragarri zuen. Ponentzien zuzenketak zein beste hautagaitzak aurkezteko epea otsailaren 18a arte dago zabalik, baina Diezen ustez, ez dirudi hautagaitza alternatiborik egingo denik.

ELArekin elkarlanean segitzeko asmoa

Euskal Herritarrok taldeak hilaren 27rako deitu duen greba orokorrarekin bat egin du LABek, baina ez, ordea,

ELAk. Nolanahi ere, LABek ELArekin elkarlanean segitzeko asmoa agertu zuen, funtsezko gaietan ados daudelako, hala nola, presoen eskubideen defentsan eta Lizarran-Garaziren garapenean.

ponentziak

Estrategia sindikala eta antolakuntza berriz aztertzeke aukera

■ Hauek dira LAB sindikatuaren V. Biltzar Nagusian aurkeztuko diren hiru ponentzien ildo nagusiak.

Ponentzia politikoa

► **ETAren su-etena** • ETARI su-etena indarrean jartzeko exijitza ez da LABen ustez premiazkoa. Aspalditik datorren arazoaren sustraiei heltzea baita borroka armatuarekin betiko amaitzeko bidea.

► **Euskal Estatua** • Europan dauden herrialdeek erabakitzeko adina ahalmen duen estatu eredu aldarrikatzen dute. Estatu horrek Piri-oiotako alde bietako lurralde ba-

koitzaren erakunde eta kultur aniztasuna errespetatu behar ditu.

► **Esparru juridiko-politiko berria** • Sindikatuak ekarpenak egiteko aukera izan behar dute, baina alderdi politikoei dagokie errotua eta moduak ezartzea.

Estrategia sindikala

► **Egoera sozio-ekonomikoaren azterketa** • Hazkunde ekonomikoak ez du langileen baldintzetan onura proportzionalik ekarri. 35 orduko lanastea eta soldata sozialaren alde segitzeko asmoa agertu ditu LABek.

► **Gizarte eredu** • Subiranotasuna lortuz gero, elkartasunean eta aberastasunaren eta lanaren banaketan oinarritutako gizarte eredu sortu behar da.

► **Sindikatuaren indarra langileen interesen zerbitzura** • Sindikatuaren mugimenduen indarrak egituratu behar dira euskal langileen baldintzen zerbitzura jartzeko.

Barne antolakuntza

► **Langileen parte-hartzea bultzatu** • Langileen berezitasunak kontuan hartu eta guztien beharrak asetzeko moduko sindikatu eratu nahi

du LABek. Halaber, sindikatuko zuzendaritza organoetan gero eta gazte eta emakume gehiago izatea nahi dute.

► **Sektore «zailetan» sartu** • Orain arte sindikatuak hainbat sektoretan ezin izan dute hedatu. Beraz, alor horietako langileengana iristeko ahaleginak egingo ditu LABek.

► **Herri Biltzarra** • Lizarrako herri biltzarra aitzindaria izan zen, eta apirilako kongresuan dinamismoa eta partaidetza sendotzen duen eredu hori zabaldu nahi dute.

► **Eredu malgua** • Etorkezunean aldatu egin nahi izanez gero, organo malguak egiten saiatu da LAB.